


**ARKITEKTOEN ELKARGOAREN EGOITZA
C MAILA****FRANTZIA PASEALEKUA 11**

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1926.

Deskribapena

Etxebizitza independenteak dituzten etxeetan ez bezala, 11 zenbakia, jatorrian, hiru fatxada eta 10. atarira begira zegoen mehelin bat zituen jauregitxo gisa antolatu zen. Etxerako bi sarrerak albo batean zituen. Behe oinerako sarrera lorategiaren mailan zuen, zerbitzuak erabiltzeko. Sarrera nagusitik, berriz, lehen oinera igotzen zen harmailadi bikoitz batetik. Gaur egun eraikinak jatorrizko fatxadak gordetzen ditu. Barrualdea, berriz, eraberritu egin dute Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren egoitza probintzial gisa erabiltzeko. Geltokiaren eta Santa Katalina zubiaren artean 1912. urtetik aurrera eraikitako jauregi itxurako eraikin bateratuen multzoaren barruan kokatzen da. Multzoa osatzen duten zazpi eraikinak bakartuak dira, sarrera pasealekutik dute eta lorategi pribatuz inguratuak daude. Etxearen jabetza etxebizitzetan banaturik dagoenean, lorategi pribatu horiek behe oineko edo bastardeko etxebizitzetan jabeenak dira. Harlanduzko oinarrien gainean lursailen burdinazko itxiturek multzoaren batasuna gordetzen dute diseinu diferentekoak izan arren.

Babes erregimena.

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak: arotzeriak eta pertsianak.
 - B.- Babesaren xede diren elementu iraunkorrak: harlanduzko elementuak; lorategiaren itxitura.
Dena den, lorategiaren itxitura horiek desmuntatu eta berriro eraiki daitezke, sarbideak ireki daitezke, eta lursail eta eraikuntza horien erabilerei loturiko premiengatik justifikatutako aldaketa mugatuak egin daitezke. Dena den, kasu horietan guztietan egin daitezkeen proposamenek lorategiak gaur egun dituen itxitura soluzioak errespetatu eta imitatu beharko dituzte. Proposatutako lanak baimenduko dira aurretik aipaturiko helburu hori behar bezala betetzen badute, eta hala egingo denaren bermeak zehaztu ondoren.
 - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: "Frantzia Pasealekua" E mailako multzo katalogatuaren barruan egotearen ondoriozkoak; oin bateko mantsarda mantenduko da. Ez dira jasodurak baimentzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.